



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2024KO UZTAILAREN 24AN BASABURUKO UDALAK **EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2024ko Uztailaren 24an, arratsaldeko 19:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Santos Etxegia Oronoz alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Belouqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Alaia Etayo, M^a Mar Ansorena, Julen Beunza, Javier Auza, Micaela Elizalde eta Iker Isiegas.

Bertaratu da baita ere Isabel Ilarregi Itsasoko kontzejuko alkatea.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDAA

1.- Aurreko aktaren onespena.

Ekainaren 26 ohiko batzarreko akta eta uztailaren 10eko ez ohiko aktak deialdiarekin batera bidali zirenak, bildutakoek aho batez onartzen dituzte biak.

2.- Alkate ebazpenak

-2024/78 alkate ebazpena Erbitiko 7. Poligonoko 5. Lursailean dagoen etxearen inguratzaile termikoa eta leiho eta kontraleihoak aldatzeko obra baimena emanaz, Jesus Gaspar Oscozi.

-2024/79 alkate ebazpena obra baimena onartuz Trinidad Echeguia Cenozi, Oroketako 8. Poligonoko 14. Lursailean dagoen biltegia erausteko.

-2024/80 alkate ebazpena onartuz Marta Landerira Santosek aurkeztutako aitorpen arduratsua Aizarotzko Mendialde 10 A kaleko etxebizitzako terrazan zeramika jartzeko

-2024/81 alkate ebazpena obra baimena onartuz Felix Beunza Larumberi Ihabengo 3. Poligonoko 89. Lursailean itxidura pareta egikaritzea.

-2024/82 alkate ebazpena onartuz Idoia Otxotorena eta Igor Arangoari obra baimena Berueteko 11. Poligonoko 508. Lursailean etxebizitza egikaritzeko.

-2024/83 alkate ebazpena obra baimena onartuz Telefonica de España SAU-ri Oroketako 8. Poligonoko 323. Lursailean 3 zutoi eta riostra bat aldatzeko.

-2024/84 alkate ebazpena obra baimena onartuz Telefonica de España SAU-ri Olako 15. Poligonoko 40. Lursailean zutoi bat aldatzea.

-2024/85 alkate ebazpena Telefonica de España SAU-ri obra baimena onartuz Berueteko 11. Poligonoko 455 eta 456. Lursailetan 2 zutoi aldatzeko.

-2024/86 alkate ebazpena onartuz 2024 urteko Zirkulazio zergaren dagokion zatiaren itzultzea 6999 FHC matrikuladun autoa behin betikoz baja emateagatik, itzuli beharreko kopurua 39,06 eurokoa izanen delarik.

- 2024/87 alkate ebazpena onartuz 2024 urteko Zirkulazio zergaren dagokion zatiaren itzultzea 0719BXD matrikuladun autoa behin betikoz baja emateagatik, itzuli beharreko kopurua 66,89 eurokoa izanen delarik.

-2024/88 alkate ebazpena onartuz, Jose Miguel Loidi Goñi aparkatzeko elbarriendako txartela ematea.

-2024/89 alkate ebazpena baimena emanaz Ilargi Collado Iribarrenek egindako eskaera, Aizarotzko Luzia Goñi kultur etxeko gela txikia erabiltzeko, Aizartzko bizilagun batzuk sortutako kooperatibarekin partekatuz.

-2024/90 alkate ebazpena onartuz Maite Sanchez Lasterrak egindako eskaera eta hortaz onartzea bi hilabeteko soldatik gabeko baimena, 2024ko uztailaren 5etik urriaren 5era.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte orain arte egindako alkate ebazpenak,

3.- Lur ez urbanizagarrian baimenen etetearen luzapena.

2020ko uztailaren 31eko batzarrak onartu zuen hasiera batez udal planaren berrikuspena. Data hori kontutan hartuz eta 2017/1 Foru Dekretu Legegilearen 70. Artikuloa jarraituz “ 1. *Hirigintza-planen hasierako onespenerako eskumena duen administrazioak, haren aurretik, lursailak zatitzeko, eraikitzeko eta eraisteko lizentziak etetea erabaki ahal izango du, area edo erabilera jakin batzuetarako, haien eraketa edo eraberritzea aztertzeko, eta behar besteko argitasunez definituz eremu horiek. Erabaki hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da eta, gutxienez, Foru Komunitatean argitaratzen diren egunkarietan.* 2. *Hirigintza-planen hasierako onespenerako erabakiak, berez eta besterik gabe, lizentziak ematea etengo du plangintzaren xede diren lurralde-eremuetan, baldin eta horien zehaztapen berriek indarrean dagoen hirigintza-araubidea aldatzea badakarte. Eteteak zein eremuri eragingo dion berariaz adierazi beharko da.* 3. *Aurreko 1. paragrafoan aipatutako etendura, nolanahi ere, urtebeteko epean azkenduko da. Hasierako onespenerako erabakia epe horren barruan hartu bada, plangintzako zehaztapen berriek hirigintza-antolamendua aldatzea dakarten*

eremuetarako etendura mantenduko da, eta haren ondorioak behin betiko iraungiko dira plangintza edo haren erreforma aztertzeko hartutako etete-erabakitik bi urte igaro ondoren. Hasierako onarpena urteko epea igaro ondoren egiten bada, hasierako onarpen horren ondoriozko eteteak ere urtebeteko iraupena izango du gehienez. Hasierako onepenen erabakiaren aurretik lizentzien ematea eteten ez bada artikuluhonen 1. zenbakian xedatutakoaren arabera, hasierako onepen horrek zehaztutako eteteak gehienez bi urteko iraupena izango du. Nolanahi ere, plangintza behin betiko onartzearekin batera iraungiko da etendura. 4. Aurreikusitako kasuetako edozeinetan etetearen ondoreak azkentzen direnean, hiru urteko epean ezin izango da erabaki beste eteterik helburu bererako.”

Hortaz 4. Puntuari aipatzen den epea pasa denez, berriro bertan behera utzi ahal dira baimenak udal planaren berrikuspenaren tramitazioaren baitan, lur urbanizagarrian tramitatzen diren espediente oro.

Hortaz bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute gehiengo osoz:

- **Etetea lur ez urbanizagarrian tramitatu behar diren obra baimenak, udal planaren berrikuspenaren tramitazioarekin lotuta eta 2017/1 Foru Dekretu Legegilearen 70.4 artikuluen baitan.**
- **Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu.**

4.- PSTD programako proiektuen obra zuzendaritzaren esleipena.

Alkateak azaltzen du, Cederna Garalurrek jada sinatu duela Nafar Gobernuarekin hitzarmena PSTD programan onartuak dauden funtsak jasotzeko, eta ere udalarekin sinatu du programa horretan sartuak dauden bi proiektuak egin eta diruz laguntzeko baldintzak finkatzen dituen hitzarmena.

Hortaz obren esleipena egin ahal da jada, eta horretarako lehenik obra zuzendaritza esleitu behar da. 2018/2 Kontratu Publikoen Foru Legearen 80. Artikuluen baitan, esleipen zuzena egin ahal da, zerbitzu kontratuak direnean 15.000 euro baino gutxiagoko aurrekontua egonik.

Kasu honetan hala izanik, Mediodes S.L enpresak proiektua egin dituen enpresak aurkeztu duen aurrekontua onartzea dagokio batzarrari, obra zuzendaritza berei onartuz.

Aurrekontuak hauek lirateke, 4.850 euro BEZ kanpo lhabengo aisialdi gunea egokitzeko proiektuaren obra zuzendaritza eta 4.000 euro BEZ kanpo Jauntsarasko baso sorgindua sortzeko proiektuarena.

Hortaz bildutakoek aho batez 2018/80 Foru Legearen 80. Artikuluen arabera onartzen dute lhabengo aisialdi gunea egokitzeko proiektuaren obra zuzendaritza Mediodes Consultoria Ambiental y Paisajismo enpresari onartzea

4850 euroengatik eta Jaunsaratsko Baso sorgindua sortzeko, obraren zuzendaritza 4.000 euroko aurrekontuarekin BEZ kanpo bien kasuan.

Erabaki hau Mediodes Consultoria Ambiental y Paisajismo enpresari jakinaraztea.

5.- PSTD programan sartutako obren esleipenerako plegua onartzea.

Alkateak gogoratzen du nola PSTD programan bi proiektu dauden sartuak, alde batetik lhabengo aisialdi gunea egokitzeak eta bestetik Jaunsaratsen baso sorgindua egiteak. Obrak hiru zatitan aterako dira, lhabengo aisialdi guneko obra bi zatitan egingo delako, alde batetik komun idorra jartzea eta bestetik ibaian egin beharreko obrak. Errekan egin behar diren obren helburua da puntu horretan biltzen den turismoa sakabanatzea eta horregatik sortzen da hondartza antzeko puntu bat, erreka sartzeko egurrezko plataforma baten bidez. Gainera ere krainer horma bat egingo da zonalde honi eusteko eta aisialdi gunean jolastoki bat egingo da ere.

Horregatik 3 plegu prestatu dira, obrak modu irekian esleituak dira 2018/2 Kontratu Publikoen 72. Artikulua jarraituz.

Bildutakoek aztertzen dituzte egindako plegua eta finkatzen dituzte bai balorazio irizpideak bai balorazio mahia.

Balorazio mahaia hauek osatzea adostu dute bildutakoek aho batezko bozkarekin:

Lehendakaria: Santos Etxegia Basaburuko udaleko alkatea

Mahaikideak: Xabier Azpiroz Garapen Batzordeko ordezkaria, Micaela Elizalde, Basaburuko udaleko zinegotzia, Irati Lure Cederna Garalurreko teknikaria eta Mediodes consultorio Ambiental enpresatik ordezkari bat.

Mahaiaren idazkari funtzioak udaleko idazkariak egingo ditu.

PSTD programen baldintzetako bat da proiektuak CoFEE plataforman zintzilikatzea, momentuz hori ezin da egin plataforman akatsak daudelako hortaz esleipen prozesua CoFEE martxan dagoenean hasiera emango zaio esleipen prozedurari iragarkia kontratazio portalean jarritz.

Baina bildutakoek pleguen azterketa egin ondoren eta balorazio mahai kidean finkatu ondoren aho batez onartzen dituzte hiru obrak egiteko baldintza pleguak. Proposamenak aurkezteko epea hilabetekoa izatea ere aho batez onartu dute bildutakoek.

6.- Sasturain etxeko beheko gela egokitzeak obra esleitzeko plegua onartzea.

Alkateak azaltzen du uztailaren 18an arkitektoek aurkeztu zutela proiektua. Beraiekin egindako lehen bileraren egindako proposamenak sartu dituzte behin betiko proiektuak, Bildutakoek aztertzen dituzte planoak eta aurrekontua. Egikaritze

aurrekontua 220.000 euro ingurukoa da, horri gehitu behar zaio gastu orokorrak eta mozkin industrialak, hortaz esleipen aurrekontua 251.999,13 eurokoa da.

Aurrekontu honetan ez dago sartua, eguneko zentroa janzteko beharrezkoak diren altzariak eta beste... hori beste esleipen batean burutuko daitekeelako.

bildutakoek eztabaidatzen dute obra eta altzariak ateratzea elkarrekin edo bereiz. Azkenean aho batez hartzen duten erabakia bereiztea da, hots alde batetik obra (sukaldea eta komunak barne) eta bestetik eguneko zentroaren altzariak.

Obrak modu irekian esleituko dira 2018/2 Kontratu Publikoen 72. Artikulua jarraituz eta horregatik bildutakoek aho batez onartzen dute obra arautuko duen baldintza plegua onartzea eta balorazio mahaia ondoren zehazten direnekin osatzea:

Lehendakaria: Santos Etxegia Basaburuko udaleko alkatea

Mahaikideak: Benito Alberro eta Esther Lakasta Gizarte Batzordeko ordezkariak, M^a Mar Ansorena, Basaburuko udaleko zinegotzia, eta proiektua idatzi duten arkitektoak.

Mahaiaren idazkari funtzioak udaleko idazkariak egingo ditu.

Proposamenak aurkezteko epea abuztuaren 31a arte izatea adosten dute bildutakoek.

7.- Taxi erabileraren ordenantzaren aldaketa. Behin betiko onespena.

Alkateak adierazten du maiatzaren 29ko batzarrak hasiera batez onartu zela ordenantzaren aldaketa, aldaketa hau tarifei eragiten zien, hasierako ordenantza ez zeuden finkatuak eta aldaketarekin hauek dira onartutako tarifak

Tarifak hauek izango ziren:

Eguneko tarifa; gutxieneko kuota 10 eurokoa , kilometraia 0.70

Gabeko tarifa, gutxieneko kuota 12 eurokoa eta 0.875 kilometraia.

Gutxieneko tarifa 14 kilometro osatu arte izango litzateke.

Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen ekainaren 13an eta 1990/6 Nafarroako Tokiko Administrazioako Foru Legearen 325. Artikulua jarraituz hilabeteko epean egon da eta ez dira alegazioak aurkeztu hortaz behin betiko onespena ematea dagokio ordenantzaren aldaketa honi.

Hortaz bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- **Behin betiko onespena eman Taxi baimena arautzen duen ordenantzari bertan taxiaren tarifak finkatzen direlarik.**
- **Erabaki hau eta ordenantzaren testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu.**

8.- Mozioak.

Ez dago moziorik.

9. - Batzordeen informazioa.

Kultura Batzordea. Iker Isiegasek ematen du informazioa.

Abuztuan perseiden ikuskapena egingo da, kontzejuei zabaldu zaie ze kontzejutan egingo den erabakitzeke, ondoren informazio horrekin kartela egingo da.

Udazkenerako 2 hitzaldi burutuko dira, eta ideia da horietako bat mendiarekin lotuta egotea, Lizarrako mendi taldeak eskainia.

Beste hitzaldia Irulegiko eskuaren inguruan izango da.

Euskara Batzordea. Iker Isiegasek ematen du informazioa.

C1 euskara tituloa ateratzeko ikastaroa burutuko da eta 16 urtetik gorakoei gutuna helaraziko zaie izena eman dezaten.

Azaroaren 9an bertso saioa burutuko da Jauntsaratsen.

2025. urtean Euskararen eguna ospatzeko lanketan ari da batzordea.

Hezkuntza Batzordea. Alaia Etayok ematen du informazioa.

Eskola garraioaren proposamena prestatu da Nafar gobernuan aurkezteko, bi ruta aurreikusi dira, bat taxiarekin egingo dena eta bestea autobus txiki batekin helburua da Basaburutik zuzenean Iruñera iristea.

Berdintasun Batzordea. Micaela Elizalde ematen du informazioa.

Berdintasun teknikariarekin bilera izan da, pestetarako materiala herrietan banatzeko.

Kirol Batzordea. Javier Auzak ematen du informazioa.

Sega txapelketarako laguntza jaso da, 650 eurokoa

Polikiroldegian rokodromoa egiteko laguntza eskatu da.

9.- Informazio orokorra:

- Yoga eta aktibatu programetarako 2.398 euroko laguntza onartu da.
- Langabetuen kontrataziorako 6.600 euro, hauek maiatzan hasi ziren bi kontratuertarako da.
- Pediatra zerbitzuaren faltagatik osasun eremuko udal guztietan, uztailaren 10ean onartu zen mozioa onartu da eta Osasunbideari bidali, bilera bat ere eskatu da.
- Ameriketara artzai joan zirenen festa, Berueten burutuko da urriaren 12an. Hara joan zirenen argazkiak bildu behar dira adieraziz nor den argazkietan agertzen direnak, izen eta abizenekin.
- Udal buletina ez da abuztuan argitaratuko.
- Iharduera ekonomikoen gunean lursailak erosteko badago beste interesdun bat.

- Kalean dauden zakur galdu eta katuak artatzeko laguntza bat eskatu da Nafar Gobernura, eta horretarako Igoako Virginia Fernandezekin sinatu da hitzarmena bat lan horiek burutzeko eguneko 12 euro kobratuko ditu animaliaren bat artatzen bada.
- Mendialdeko azoka ibiltaria. Azaroaren 3an egingo da eta gaztainen gaiari lotutako egitasmo bat burutuko da bertan, aste osoan zehar hainbat hitzaldi eskainiko dira gai horrekin lotuta (nola kimatu, nola sukaldatu eta beste...)

10. Erregu-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeke ez dagoenez 20:45 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.